

Salvador Cardus Ros

Soziologia

Kataluniako independentismoaren heldutasunerantz

■ Kataluniako Ezker Errepublikarrekoi buruzagi garrantzitsuren ihes bixia ikusgarria eta eskandaluzkoa izan bada ere, badirudi, alde guztietatik erreparatuta, oro har ez duela ondorio larrikir izango independentismoarentzat; are gehiago, ERCri erraztu egingo dio guztiz beharrezkoa duen berrikuntza. Egia da ezin zaiela ukatu Angel Colom eta Pilar Raholari gaitasun handia dutela jendea harri eta zur uzteko. Lehengo aktibismo testimonialisten eta bigarren efektismo mediatioan hazita, efektu kolpearen teknikan sintesia eta klimaxa bereganatu dute, ezin eztabaidatzeko emaitza mediatioak lortuz.

Baina ez gaituzte harritu behar ez bere alderditik ihes egin duen idazkari nagusiaren ikuskizunak, ez eta diputatuaren malkoek ere; hauek —maltzurki— konparaketa bat sujeritu dute Galesko Dianak BBCri eskainitako elkarrizketa ospetsuan erakutsi teatralitatearen eta Raholak Pepe Navarrokerekin batera Mississippia zeharkatu zuenean erakutsitakoaren artean. Alderdiak eta, oro har, Kataluniako gizar-teak izan duten erreakzioa da aztertu beharrezkoa. Eta horri dagokionez, gauzak oso argi gelditu dira: ihes egindakoek kargu instituzionalak eraman dituzte berrekin, nahiz eta ERCK duela urtebete baino gutxiago onartutako kode etikoa betetzeko konpromezua hartua zuten; haren arabera, kargu horiek itzuli egin behar zituzten. Colom eta Raholak orain argudiatutakoan gisako desadostasun ideologikoak izanda ere. Bestalde, begien bistakoa da Colomek ez duela jasan alderdian sektore kritikoa bat agertzea. Hauen asmoa zen alderdiaren egitura demokratizatzea, eta eduki politikoa zehatzez betetzea Colomen independentismo hutsala. Baina, hain zuzen ere, hurrengo kongresuan ziur aski idazkaritza nagusitik kenduko zutela konturatu zenean aldegin du.

Baina ez dugu nahastu behar. Nahiz eta zenbait ahotsek, gaizki informatuta edo asmo txarrez, alderdiaren eta, hedaduraz, independentismoaren haustura edo leher-tzea ikustarazi nahi izan duten, kontua da

Colom eta Raholaren ihesak erraztu egingo duela Kataluniako independentismoak heldutasun politikoa lortzeko bidea. ERCK hutsegite larriak egin ditu 1993. urteaz geroztik, ez baitu jakin izan behar bezala erantzuten azken urteotako erronka politikoei. Horrela, ez du asmatu erantzun politikoa eraginkorrik prestatzen estatua-ren legitimitateak aldi honetan jasan duen krisi larriaz balaitzeko; aitzitik, bat egin du, gogo handiz egin ere, Espainiako politika garbitzeko ildoarekin, baina bere

extea txukundu gabe utzi du. Hainbeste aparatu mediatico erabili ondoren Raholak hauteskunde orokorretan lehengoan geratzeak, edo are atzera egiteak ere, nabarmen utzi du okerra izan dela erabilitako estrategia, buruzagiak ospetsu bihurtu baditu ere, ez delako alderdiaren hautesleek gustukoa izan.

Gainera, badago hori guztia larriagotzen duen beste faktore bat: CIUK PPrekin egin dituen itunen ondorioz, libre geldi daitezke gaur egun arte Jordi Pujol buru duen

koalizioari botoa eman dioten sektore nazionalisten eta aurrerakoiaren arteko gehienak, inola ere ezingo baitute irenssi Madrilekin egindako akordioa. Pujolek badaki hori, eta dagoeneko hasi da zorrozten bere diskurtso nazionalista, nahiz eta geroago eta sinesgarritasun gutxiago daukan jendearen artean, aspertuta dutxa suediarraz gehiegi baliatu delako: orain hotza, orain beroa. Gauzak horrela, ERC heldu eta diskurtso konstruktibo batez hornitua, inondik ere jomuga egokia litzateke boto horientzat. Eta nahiz eta Euskal Herriatik begiratu boto gutxi direla iruditu, ez dugu ahaztu behar *La Vanguardia*-k berriki argitaratutako inkesta bat. Horretan, nahita egiten zen galdera murriztaile bat, alegia, Katalunia independente izatea beharrezkoa ote zen (komenigarria edo hobesgarria litzatekeen galdetu beharrean). Balezko erantzunen kopurua oso garrantzitsua izan zen: % 24. Besterik da, inkestak berak erakusten zuten bezala, % 24 hori gero alderdi guztiei, baita PSC-PSOEri ere, emandako botoetan banatuta agertzea.

Labur esanda, badirudi ERCK herri honetan sinesgarri izateko erakutsitako gaitasun faltak erabaki duela bere hauteskunde-muga: izan ere, hemen politikoki hazteko ezinbesteko baldintza baitira buruzagien seriotasuna, ekintza-proiektu eraginkorrez hornitutako diskurtso positiboa izatea eta estiloen moderazioa. Kataluniako independentismo lasaia deritzon beharrezkoa zuten lasaitasuna eta proposamen zorrotzak bateratzeko gaitasuna izango zuten alderdi bat, eta ez kutsu mesianikoa eta ikuskizun mediaticorako joera nabarmena zituen mugimendu bat. Orain, Carod-Rovira buru duen talde berriarekin, badirudi gauzak aldatu egingo direla eta, azkenean, ez badituzte hutsegite gehiago egiten, botoa alderdi guztietan banatuta izan duen independentismo lasai haren zatirik handiena bere botoan bildu ahal izango dela. ■

Erredakzioan itzulia



Txillardegia

EHUko irakaslea

Zaharrak berri

■ Tibet oso herrialde zabala da: 1.220.000 kilometro karratu, hirurogei aldiz handiagoa Euskal Herria baino. Baina jende gutxi bizi da bertan: 2.200.000 biztanle. Tibet, hitz batez, *hutsa* da. Eta ez da harritzekoa, oso eskualde garaia dela kontutan hartzen badugu.

Tibetar herria ez da *han*; ez da txinatarrak, bestela esanda. Nahiz 1950az geroztik Txinako parte izan... konkistaren ondorioz.

Budismoarekiko interesa noizpait izana dugun guztiok dakigu ongi. Tibet *lamaista* dela erlijioz. Eta lamaismo hori halako budismo heterodoxo bat dela. Lhasa hiriburuko Potala famatua, Vaticano-ren antzekotzat jo izan da. Bertako hizkuntza

bodpa da (*Thubet* hitza mongoliarrek emandako izendapena da); eta Kaxemiran, Bhutanen eta Nepalen mintzatzen da batez ere; Himalaya inguruan, beraz, Birmaniararen antzekoa, hizkuntza ofiziala da Tibet VI. mendean geroztik.

Hots, horra hor Tibet *berri modan* jarria. 1.300 milioi biztanle dituen Txinak ezin du *puska* hori galdtu; eta, tibetarrak txinatar senditzen ez direnez gero, *berreskolatzeari* ekin dio (*re-education* irakurtzen dugu ingelesez).

Bereskolakuntza horretarako gunetzat, Lhasa inguruko hiru monastegi hautatu ditu Pekingo gobernuak: Sera, Drepung eta Ganden. Irakasleak Alderdi Komunistaren *lan talde* bereziak dira, Maoren ga-

raiko brigadetan funtsatuak.

Monastegietako fraile budistek arbuaiatu egin behar dute Dalai Lama burua, eta beronen irudiak desagertu ere egin dira Tibetan.

Kanpainari *ptzkunde abertzale* deritzo; eta helburua hau da: Tibeteko monastegietan alderdi bakarraren ideologia eta politikabidea sustatzea. Hori dela eta, fraile asko eta asko, orain dela 40 urte bezala, deserriara joan da udaz geroztik.

Monastegietako fraile abertzale horiek, *separatista* omen dira: *puskatu* egin nahi omen dute Aberria; Txina, alegia.

Baketan bizi nahi duten fraileek dokumentu bat sinatu behar dute, bost ideia nagusi hauen inguruan:

1. *Separatismoa* garbiki gaitzetea.
 2. Tibeten eta Txinaren arteko *batasuna* defenditzea.
 3. Txinatar gobernuak izendatutako Panchen Lama zipaioa aintzakitatzat hartzea.
 4. Argiro aldarrikatzea Txina eta Tibet beti bat izan direla, eta Tibet ez dela inoiz burujabea izan.
 5. Dalai Lama garbi salatzea.
- Ez dakigu hau guztia nola hartuko den kanpo aldean. Baina hemen, Euskal Herrian, *du déjà vu* kutsu azkarra du pentologo antiseparatista horrek.
- Zinez esan dezakegu: imperialismoa ez da batera aldatu. Ezta *ezkerra* (??) delakoaren izenean egiten denean ere. ■